



Arartekoaren 1/2011 Gomendio orokorra, uztailaren 13koa.
1960ko eta 1970eko hamarkadetan jaioberriak beren ama biologikoengandik bidegabe banandu edo ebatsi zireneko egintzak argitzen lagunduko duten neurrien premia.

I. SARRERA ETA AURREKARIAK

- 1 Arartekoak hainbat kexa jaso ditu jaioberriak ama biologikoengandik bidegabe ebatsi edo banandu izanari buruz. Kezka bikoitza helarazten digute, alde batetik seme-alabak edo ama ezagutzeko nahia eta bestetik egintzak argitu eta horiek auzitaratzekoa.

Egintza horiei eginbide penalak zabaldu zaizkie salaketak jarri diren gainerako autonomia erkidegoetan. Salaketa horietako askotan Anadir Elkarteak (Adopzio Irregularrek Kaltetutakoan Elkarte Nazionala) joan den 2011ko urtarrilaren 27an Estatuko Fiskaltza Nagusiaren aurrean aurkeztu zuen salaketarekiko atxikimendua eskatu izan da. Estatu osoko ospitale eta klinika ezberdinetan haurren jaiotzen inguruan izandako irregulartasunak dira salaketon muina.

Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat salaketa jarri dira hiru fiskaltzetan.

- 2 Ama biologikoen semea edo alaba adopzioan eman nahi izatea zalantzan jartzen den kasuak eta amaren identitatea ezezaguna delako adoptatutako seme-alabek beren jatorria zein den jakin ezin duten kasuak dira kexetan jasotzen direnak. Semea edo alaba jaio eta gutxira hil egin zela pentsatu eta ondoren heriotza horien baldintzak oso argiak izan ez zirela jakin duten amek ere jarri dituzte kexak. Aipatutako ezohiko baldintza horiek hainbat izan daitezke, besteak beste: medikuaren partean ageri diren datuak eta eman zieten informazioa ez datozela bat, edo medikuen parteetan jasotako datuetan ez dagoela ama biologikoaren daturik, adopzio-amaren datuak bakarrik jaso zirela ama biologikoa bailitzan, edo guraso biologikoei ez zietela umeen heriotzari buruzko datu zehatzik eman; horrek heriotzak benetakoak izan ote ziren zalantzan jartzea ekarri zuen, eta zalantza horiek are handiago egin ziren hilerrietako ehorzketa-liburuetan begiratu eta beren semea edo alaba han lurperatu ez zela jakiterakoan.

SOS Euskadiko Haur Lapurtuak Elkarteak ere jo du erakunde honetara, eta izaten ari diren zailtasunen berri eman digu. Hauek dira:

Jaiotzari, adopzioari eta, hala dagokionean, heriotzari buruzko informazioa biltzeko arazoak dituzte datuak ez daudelako behar bezala erregistratuta edo ez dizkietelako eman nahi. Halako kasuetan, datutegietako edo erregistroetako arduradunek argudiatzen dute ezin dietela informazioa eman intimitaterako eta datuen babeserako eskubideak urratzen direlako.





Horrenbestez, ezin izan dute informaziorik lortu ospitale ez kliniketan, foru aldundietan ezta hilerrietan ere. Gainera, Donostiako kasuan, hiriko Erregistro Zibilean desagertu egin dira 1975 urtea baino lehenagoko paper-sortak eraikin batetik besterako lekualdaketa onduz.

- 3 Egintza horiek ikerketa penalaren zain dauden arren, ezinbestekoa da egoera horiek nolako baldintza sozialetan gertatu ziren eta garai hartan zer-nolako araudiak zeuden aztertzea eta hausnartzea, oso garrantzitsua baita familien memoriarako, baina azpian datzan erantzukizun penala alde batera utzita egin behar da, horren muga delituen iraungipena baita. Arartekoaren ustez, nahitaezkoa da azterketa sakon eta zorrotza egitea eta egintzen zein testuinguru sozio-normatiboaren ikerketa zehatza egitea, eskubide garrantzitsuei eragiten baitie gai honek, besteak beste, identitatea izateko eskubideari eta norberaren jatorri biologikoak ezagutzeko eskubideari nahiz pertsonalitatea libreki garatzeari lotutako eskubideari. **Gainera, gizartearengan alarma eta erakunde publikoekiko mesfidantza eragin ditu, beraz, ezinbestekoa da horri aurre egitea.**

Erakunde honek ezin du prozedura penal batean aztertzen ari diren egintzei buruzko informazio gehiago lortu. Hala ere, hainbat kexa eta eskakizun jaso ditugu Arartekoaren esku-hartzea eskatuaz. Salatutako egintzak oso larriak eta garrantzi handikoak dira, eta horrek eskubideak defendatzeko erakunde bat eskatzen du, beraz, Arartekoak ezin du ezer egin gabe geratu eskubideak urratu direla eta neska-mutilak adoptatzeko prozesu horietan ziurren prozedura legalak bete ez zirela ikusita.

Ebazpen honen helburua honakoa jakinaraztea da: abian diren prozedura judizialak alde batera utzita, jarduera zehatzak jarri behar dira martxan egintzak zehatz-mehatz ezagutzeko, kaltetuei ordaintzeko neurriak proposatzeko, aplikatu ziren araudiak aztertzeko, orduz geroztik gauzatu diren araudi-aldaketak nahikoa izan ote diren baloratzeko eta, hala behar izanez gero, lege-aldaketak proposatzeko. Beraz, egintzak argitzea, kaltetuei ordaintzea eta, etorkizunean halako gertakaririk errepikatzea ekidite aldera, sistema juridikoa aztertzea ahalbidetuko duten ekintza ezberdinak gauzatzeko premia planteatzen du ebazpen honek.

Diputatuen Kongresuak ama biologikoei umeak ebatsi eta horiek adopzioan emateari buruzko ez-legezko proposamena onartu du 2011n (2011ko martxoaren 2ko DKAO). Onetsi den testuan Fiskaltzarekin, erakunde judizialekin eta kaltetuek salatzen dituzten umeen lapurreta eta bidegabeko adopzio kasuak ikertzeko eskumena duten gainerako erakundeekin lankidetzan aritzeko eskatzen zaio Gobernuari. Familiei laguntzeko ere eskatzen zaio, bere eskumenen alorrean eman dezakeen laguntza guztia eskainita.





Horretarako Gobernuak:

- a) Justizia Ministerioaren bidez, eta datu pertsonalen babeserako legediari jarraiki, agintari judizialek eskatzen dituzten ADN probak egiteko berariazko programa bat abian jartzea bultzatuko du.
- b) Komunikazio-bide instituzionalizatu iraunkorra ezarriko du kaltetuekiko, pertsona horietako bakoitzari gertatutakoa argitzeko helburuz.
- c) Senitartekoei Erregistro Zibiletan informazioa lortzea errazteko formulak aztertuko ditu.

2011ko ekainaren 9an, Eusko Legebiltzarrak Adopzio Irregularrek Kaltetutakoen Elkarte Nazionalaren (Anadir) eskariei buruzko 86/2011 ez-legezko Proposamena onetsi zuen; bertan kasuon ikerketaz arduratzen diren epaileek zein fiskalek eskatutako ADN probak azkartu ahal izateko mekanismo egokiak garatzeko eskatzen zaio Espainiako Gobernuari, beti ere berme konstituzional eta legalak errespetatuz. Halaber, arlo honetan probintzia-fiskaltzek modu koordinatuan jardutea lortzeko, egokitzen jotzen da Estatuko Fiskal Nagusiak kasuen segimendua egingo duen eta fiskaltza ezberdinen jardueren multzoa bultzatuko duen fiskal koordinatzailearen irudia sortzea. Azkenik, positiboki baloratzen ditu Eusko Jaurlaritzak Adopzio Irregularrek Kaltetutakoen Elkarte Nazionaleko ordezkariekin izandako bileren inguruan garatu dituen jarduerak, eta Justizia eta Herri Administrazio Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bidez laguntza- eta koordinazio-lanak egiten jarraitzeko eskatu dio.

II. OHARRAK

- 1 Arestian aipatutako moduan, ezinbestekoa da egintzak argitzea eta aztertzea, abian diren prozedura judizialen emaitza edozein dela ere. Horretarako, informazioa sistematizatu egin beharko litzateke eta komenigarria litzateke aditu independenteek txosten zehatz eta zorrotza prestatzea.

Txosten hori egiterakoan kaltetutako pertsonen partaidetzarako prozedura bat antolatu beharko litzateke. Lehentasunez aintzat hartu beharreko kontuetako bat pertsona horiei ordaina ematea izango litzateke, bakoitzaren egoerara ahalik hobekien moldatuta. Har litezkeen neurriak honakoak izan litezke, besteak beste: ADN proben datu-base bat sortzea eta kudeatzea legezko aurreikuspenak eta baldintza teknikoak betetzeko behar bezalako ikuskaritzarekin, proba horien emaitzetan islatzen diren bateragarritasunen erregistroa sortzea, kaltetutako pertsonen arreta terapeutikoa ematea, edo familia biologiko bateko kide ezberdinen arteko elkarretaratzean lagunduko eta prozesua erraztuko duten kalitatezko bitartekotza-zerbitzuak eskaintzea.





- 2 Aurrerapenak eman dira giza eskubideen eta bereziki umeen eskubideen aitortpenean eta babesean, eta horrek beharrezko egiten du ikuspegi kritikoa izatea garai batean orain aitortzen diren eskubide horiek berak mugatzen zituzten jardueren inguruan. Adopzio-prozeduren gardentasuna eta bermeak asko hobetu dira; zeharo aldatu da diru-kontuengatik edo ezkontzatik kanpo jaiotzeagatik umeak amengandik banatzeak pizten duen sentsibilitatea. Berme horiek oso zail egiten dute une honetan ama biologikoa nor den ez jakitea edo umeak adoptatua denik ez jakitea, eta zaildu egiten du, baita ere, adopzioan emateko zein esplotatzeko asmoz umeen trafikoa egin ahal izatea. **Hala ere, garrantzitsua da izandako tentua nahikoa izan ote den baloratzea.**

1989ko azaroaren 20an Nazio Batuen Biltzar Orokorrek umeen eskubideei buruz onartu zuen Hitzarmena inolako erreparorik gabe onartu zuen Espainiak 1990ean; hitzarmen hori onartu izanak umeen eskubideak aitortzea eta estatua horiek babestera behartuta egotea ekarri zuen. Hitzarmena oso-osorik sartu behar da antolamendu juridikoan, eta botere publikoek aplikatu egin behar dute.

Jasotzen diren eskubideen artean identitatea izateko eskubidea dago. Eskubide horrek hainbat alderdi ditu, besteak beste, jatorri biologikoa ezagutzeko eskubidea, norberaren historia izateko eta ezagutzeko eskubidea, jaio bezain pronto erregistratua izateko ume orok duen eskubidea, izen eta nazionalitate bat izateko eskubidea eta, ahal den neurrian, gurasoak ezagutu eta haien zaintzapean egoteko eskubidea. Pertsona baten identitateak nondik datorren, bere gurasoak nortzuk eta nongoan ziren edo non jaio zen jakitea eskatzen du.

Eskubide hori duela gutxi sortu da nazioartean, diktadura militarren ondorioz sortu ere (Argentinako maiatzeko plazako amonak eta amak), eta doktrina-erabatida garrantzitsua eragin du. Beste eskubide batzuekin talka egin dezake, besteak beste, intimitaterako eskubidearekin eta datuak babesteko eskubidearekin, beraz, hizpide dugun eskubidea aitortu eta babestu ahal izateko ezinbestekoa da kolokan dauden gainerako eskubideak behar bezala aztertzea.

Eskubide horrek norberaren memoriarekin eta filogenetikarekin du lotura, ondorio nabarmenak baititu osasunarengan. Egia jakiteko eta justizia izateko eskubideari ere badago lotuta. Egintzak argitzeak biktimei ordaina ematea ahalbidetzen du, eta horrek justiziaren ideiarekin lotzen du mintzagai dugun eskubidea. Bake sozialarengan ere ondorio nabarmenak ditu, izan ere, eskubide hori betetzeak esan nahi du herritarrek ziur jakin ahal izango dutela ama bat amatasun ospitale edo klinika batera doanean erditu ondoren emango diotena bere umea izango dela ez bairik gabe, eta zientziaren aurrerapenek hala ahalbidetzen duten neurrian, ospitalean edo klinikan bere historia medikoari buruz emango dioten informazioa egia zientifikoarekin bat datorren ziurtasuna izan ahalko dutela.





Identitatea izateko eskubidea juridikoki onartzeak, garatzeak eta babesteak araudi-aldaketak eragin ditzake ordenamendu juridikoan.

Eskubide hori umeen eskubideei buruzko 1989ko azaroaren 20ko Hitzarmenari jarraiki sortu da, lehen aipatu dugun legez. Honako artikulua aplikatu dira:

7. art.:

7.1 "El niño será inscrito inmediatamente después de su nacimiento y tendrá derecho desde que nace a un nombre, a adquirir una nacionalidad, y en la medida de lo posible a conocer a sus padres y ser cuidado por ellos.

7.2 Los Estados Partes velarán por la aplicación de estos derechos de conformidad con su legislación nacional y las obligaciones que hayan contraído en virtud de los instrumentos internacionales pertinentes en esa esfera, sobre todo cuanto el niño resultara de otro modo apátrida.

Art.8:

8.1 Los Estados Partes se comprometen a respetar el derecho del niño a preservar su identidad, incluidos la nacionalidad, el nombre y las relaciones familiares de conformidad con la ley sin injerencias ilícitas.

8.2 Cuando un niño sea privado ilegalmente de algunos de los elementos de su identidad o de todos ellos, los Estados Partes deberán prestar la asistencia y protección apropiadas con miras a restablecer rápidamente su identidad."

Hitzarmen hori gure ordenamendu juridikoaren zati da; horrenbestez, Estatuak aurreikusi egin behar ditu umeak identitate bat izan dezan hartu beharreko neurriak, eta identitatea izateko eskubide hori urratu egiten bada, pertsona horren identitatea ahalik azkarren leheneratu ahal izateko laguntza ematera behartuta dago. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 euskal Legeak ere jasotzen du eskubide hori 11. artikuluan; bertan honakoa adierazten du: identitatea izateko eskubidea:

1.- "Haur eta nerabe bakoitzak eskubidea du bere nortasuna ezagutzeko eta izen bat eta nazionalitate bat edukitzeko, eta jaiotzen denetik egin behar da haurren izenaren inskripzioa Erregistroan.

2.- Botere publikoek eskubide honen erabilera bermatzeko behar beste neurri hartuko dituzte eta, batez ere, betebeharrak hauek betetzen direla zainduko dute:

- a) *Medikuak egindako jaiotza-agirian ama nor den zehaztu beharko da.*
- b) *Amagandiko seme-alabatasunaren inskripzioa egin behar da Erregistro Zibilean, erregistratzeari buruzko araudiak ezarritakoaren arabera.*
- c) *Adoptatuak izan diren pertsonak edozein herri-administrazioi beraiei jatorrizko seme-alabatasunaz izan dezakeen informazioa eskuratu ahal izango dutela ziurtatzea, lege honetako 84. artikuluan ezarritako baldintzak betez.”*

Identitaterako eskubidea gure ordenamendu juridikoan sartu den eta botere publikoei eragiten dien eskubidea da.

- 3 Espainiako Konstituzioak eta konstituzio ondoko ordenamenduak aurrerapausoak ekarri dituzte identitatea izateko eskubidearen babesari dagokionez, berdintasun-printzipioa ezarri baitzuten (14. artikulua) eta baita aitatasuna libreki ikertzekoa ere (39.2 artikulua). Beste arau garrantzitsu batzuk ere badaude, adibidez, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea zati batean aldatzen dituen urtarrilaren 15eko Adingabeentzako Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa (177.2 artikuluan jasotzen du amak ezingo diola adopzioari baiezkorik eman umea jaiotzen denetik hogeita hamar egun igaro arte), edo berriena, Nazioarteko Adopzioari buruzko abenduaren 28ko 54/2007 legea; azken horren 12. artikulua xedatzen du umeak bere jatorri biologikoa ezagutzeko eskubidea duela honako baldintzetan:

12. artikulua. Jatorri biologikoa ezagutzeko eskubidea.

“Las personas adoptadas, alcanzada la mayoría de edad o durante su minoría de edad representadas por sus padres, tendrán derecho a conocer los datos que sobre sus orígenes obren en poder de las Entidades Públicas españolas, sin perjuicio de las limitaciones que pudieran derivarse de la legislación de los países de que provengan los menores. Este derecho se hará efectivo con el asesoramiento, la ayuda y mediación de los servicios especializados de la Entidad Pública de Protección de Menores u organizaciones autorizadas para tal fin.

Las Entidades Públicas competentes asegurarán la conservación de la información de que dispongan relativa a los orígenes del niño, en particular la información respecto a la identidad de sus padres, así como la historia médica del niño y de su familia.

Las Entidades colaboradoras que hubieran intermediado en la adopción deberán informar a las Entidades Públicas de los datos de los que dispongan sobre los orígenes del menor”.



Erakunde honen ustez, aztertu egin behar da Hitzarmena aplikatzeko eta jatorri biologikoa ezagutzeko eskubidea babesteko beharrezkoak diren aurreikuspenak gehitu ote zaizkion ordenamendu juridikoari. Hau da, eskubide horiek babesteko legea aldatzea edo araua egokitzea beharrezkoa den edo ez aztertu behar da. Haurrak Babesteko Lege berria egiten ari dira eta, ziurrenik, lege horrek kontuan hartuko ditu hizpide ditugun egoera guztiak, izan ere, aukera ezin hobea da araudi berria kontuan hartzeko.

Hitz batez, ezinbestekoa da indarrean dagoen araudiak salatutakoak bezalako gertakaririk gaur egun jazozea ekidin dezakeen aztertzea.

Jaiotzak Erregistro Zibilean jasotzeari buruzko araudia, jaiotza-parteetan amaren izena agertzeari buruzko araudia, adopzioen inguruan Erregistro Zibilean argitaratzen den informazioaren urritasunari eta artxiboen zein erregistroen eskuragarritasunari buruzko araudiak izango ditugu hizpide jarraian, izan ere, uste dugu araudi horiek aztertu egin behar direla eta, behar izanez gero, neurri berriak hartu behar direla identitatea izateko eta jatorri edo aurrekari biologikoak ezagutzeko eskubideak hobeto babestu ahal izateko.

- 4 Espainiarrak diren zein guraso atzerritarrengandik Espainian jaiotzen diren umeen jaiotza eta seme-alabatasuna edo pertsonen egoera zibila bezalako datuak jasotzen dira Erregistro Zibilean, halaxe xedatzen baitu Erregistro Zibilaren Araudiaren 167. artikulua (Erregistro Zibilari buruzko Legearen Araudia onetsi zuen 1958ko azaroaren 14ko Dekretua):

“Jaiotzaren partean, izenaz, abizenez, izaeraz eta hori sinatzen duenaren bazkide-zenbakiaz gain, inskripziorako nahitaezkoa den zehaztasunarekin jasoko dira, erditzearen data, ordua eta lekua, jaiotzaren sexua eta amaren nortasun-aipamenak; bertan aipatuko da ama norberarentzat ezaguna den edo egiaztatutakoa den, eta, azken kasu horretan, aztertutako agiri ofizialak edo datuok baieztatzen dituen pertsonaren nortasun-aipamenak aipatuko dira; horrek, amarekin batera, parte sinatuko du, salbu eta amak ezin duenean edo aurka jartzen denean, inguruabar hori ere jasota.

Osasun-etxeetako profesional eta langileen parteak edo adierazpenak ez du ama aipatuko beraren borondatearen aurka, haiek isilpean gordetzeko betebeharra dutenean.”

Gogorarazi behar dugu Auzitegi Gorenaren 1999ko irailaren 21eko Epaiak indargabetu egin zuela Konstituzioa baino lehenagoko erregistro-legedia konstituzio-aurkakotasunaren zioz. Izan ere, araudiak amaren esku uzten zuen amatasuna erregistroan jaso edo ez erabakitzeko eskumena.



Auzitegi Gorenaren 1999ko irailaren 21eko Epaiaren 5. Zuzenbide-oinarriak honakoa jasotzen du: *"Sin embargo, en la actualidad, y tras la vigencia de la Constitución de 1978 entendemos que tal limitación, elusiva de la constancia clínica de la identidad de la madre, ha quedado derogada por su manifiesta oposición a lo en ella establecido, y no debe ser aplicada por los Jueces y Tribunales, siendo nulos, por ende, los actos producidos bajo su cobertura. En concreto, el sistema diseñado en los artículos 167 y 182 y concordantes del Reglamento del Registro Civil y sus disposición de desarrollo pugnan con el principio de libre investigación de la paternidad (art. 39.2 de la Constitución española) y con el de igualdad (art. 14), además de erosionar gravemente el art. 10 de la CE, al afectar a la misma dignidad de la madre e hijo, a sus derechos inviolables inherentes a ella, y al libre desarrollo de su personalidad y al mismo artículo 24.1 en cuanto resulta proscriptivo de la indefensión. La coincidencia entre filiación legal y paternidad y maternidad biológica deben ser totales. Esta es la base desde la que decae la regulación reglamentaria permisiva de tal ocultación."*

Epai hori indarrean sartu zenetik, amak ez du bere amatasuna ezkutatzeko eskubiderik eta seme-alabek beren jatorri biologikoa ezagutzeko eskubidea dute.

Baina 1999ko azaroa baino lehen, medikuak amaren nortasuna ezkuta zezakeen. Justizia Ministerioaren 1999ko abenduaren 10eko Agindu bidez (1999/11/23 BOE), Gobernuak jaiotza aitortzeko galdetegi-eredu bat onartu zuen eta bertan amaren identitatea jaso behar da.

Horrenbestez, Agindu hori indarrean sartu aurretik, posible zen umeari Erregistroan izena ematea amaren daturik jaso gabe. Geroztik, ordea, datu horiek agertu egin behar dira bi salbuespen kasutan izan ezik: ama ezin identifikatu izana edo *"por cualquier causa no se hayan podido recoger las huellas dactilares del hijo y de la madre"*.

Aginduak aurreikusten du amaren eta umearen hatz-markak hartu behar direla, baina onartzen du *"ante la urgencia de la práctica de la inscripción de nacimiento no serán obstáculos que impidan esta inscripción, ni el hecho de que en el parte médico conste en blanco los espacios destinados a reflejar los datos de la madre, lo que puede suceder cuando ésta no haya podido ser identificada, ni la circunstancia de que por cualquier causa no se hayan podido recoger las huellas dactilares del hijo y de la madre"*.

Erakunde honen ustez, 1999ko azaroaren 10eko Aginduaren aplikazio praktikoa aztertu egin beharko litzateke jakiteko ea seme-alaben identitaterako eskubidea bermatzeko xedatzen dituen aurreikuspenak nahikoa diren, edo aitzitik, espediente medikoan jaso beharko liratekeen bestelako informaziorik ezarri behar den, hala nola, jaiotza-aitorpena, oin-markak, umearen eta amaren ADN proba edo amaren historia medikoa. Uste dugu

aurreikusitako salbuespenak objektibo egin behar direla. Zerk eragotzi dezake hatz-markak hartzea? Hartzen dira normalean? Noiz ez dira hartzen? Posible da ADN proba bezalako beste formula batzuk erabiltzea? Zer gertatzen da ez denean ospitalean erditzen? Helburua, beraz, aurreikuspen horiek 1999ko azaroaren 20ko Hitzarmenean ezarritako umeen identitaterako eskubidea bermatzeko eta Nazioarteko Adopzioari buruzko Legean zein erkidegoko legerian jasota dagoen jatorria ezagutzeko eskubidea bermatzeko nahikoa ote diren aztertzea da. Identitatea izateko eskubidea umea jaio eta berehala babestu behar da metodo zientifiko eta administratiborik eraginkorrenak eta seguruena erabilita. Ume bat ez identifikatzeko zioak behar bezala justifikatu beharko dira arrazoi objektiboen bidez, eta halako gertakariak ezohikoak izan behar dira.

- 5 Aztertu beharreko beste elementu bat adopzioa erregistroan jasotzeko sistema da. Jaiotzako izen-emate nagusia bertan behera utzi eta jatorrizkoa baino mugatuagoa den argitalpen-araubidea duen beste bat zabaltzeko aukera ematen du sistema horrek, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak 1999ko otsailaren 15ean adopzioa erregistroan jasotzeari buruz emandako Jarraibideari jarraiki.

Horrenbestez, jatorrizko jaiotza-erregistroa baliogabetu eta izen-emate berria egin dezakete adopzio-gurasoek. Agiri berrian adopzio-gurasoak bakarrik agertuko dira eta guraso biologikoen datuak jatorrizko erregistroan bakarrik agertuko dira; erregistro hori formalki indargabetuko da eta izen-emate berrian aipamena egingo zaio. Jatorrizko izen-emateak argitalpen mugatua izango du.

2004ko uztailaren 1eko jarraibideak urrutiago joateko aukera ematen du, izan ere, bertan jasotakoaren arabera, posible da jaiotzako erregistroan jaiotzaren beraren eta jaioberriaren datuez gain, adopzio-gurasoen egoera pertsonalak eta beren ezkontzaren aipamena **bakarrik** agertzea. *“Una vez extendidas en el Registro competente la inscripción principal de nacimiento y la marginal de adopción, si el matrimonio adoptante lo solicita durante la minoría de edad del adoptado, podrá extenderse en el folio que entonces corresponda, una nueva inscripción de nacimiento en la que constarán solamente, además de los datos del nacimiento y del nacido, las circunstancias personales de los padres adoptivos y la oportuna referencia al matrimonio de éstos”.*

Ondorioz, adoptatutako pertsonak ez du zertan jakin adoptatua denik jaiotza-ziurtagiri literala eskatu arren. Izen-emate berri horretan jatorrizko izen-ematearen liburukiaren eta orrialdearen erreferentzia jasoko da soil-soilik, ez da adopzioaren konturik aipatuko. Gainera, jatorrizko adopzio-datuen ziurtagiria lortzeko Erregistro Zibileko epaile arduradunaren baimen berezia behar da eskatzailea adoptatutako umea bera (adinez nagusia denean) edo adoptatzailea ez bada.



Beraz, Erregistro Zibilean begiratzeak ez du bermatzen interesdunak bere jatorrizko seme-alabatasuna ezagutuko duenik, ez behintzat adoptatua izan daitekeen "susmorik" ez badu, izan ere, jatorrizko jaiotza-agirian adopzioaren berri ematen bada ere, agiri berrian ez da halako informaziorik ematen. Auzitegi Gorenak arestian aipatutako 1999ko irailaren 21eko Epai hartan erabaki zuen argitalpen mugatuaren sistema Espainiako Konstituzioarekin bat datorrela. Arartekoaren ustez, baloratu egin beharko litzateke argitalpen mugatuko sistema umeen eskubideei buruzko Hitzarmenarekin bateragarria den, azken horrek gurasoak ezagutzeko eskubidea aitortzen baitie umeei. EKren 39.4 artikulua xedatzen du umeei beren eskubideez arduratzen diren nazioarteko akordioetan aurreikusitako babes eman behar zaiela; herrialde honetan Hitzarmen hori da adingabeen ezinbesteko estatutu juridikoa (maiatzaren 29ko 141/2000 AKE, 5. Oinarri Juridikoa: *"La Convención de las Naciones Unidas sobre los Derechos del Niño, la Carta Europea de los Derechos del Niño y la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero constituyen el estatuto jurídico indisponible de los menores de edad dentro del territorio nacional, en desarrollo de lo dispuesto en el art. 39 de la CE, y muy en particular en su apartado 4. A estos efectos, el estatuto del menor es, sin duda, una norma de orden público, de inexcusable observancia para todos los poderes públicos"*).

- 6 Azkenik, kolokan den beste araudi bat erregistroen eta artxiboen eskuragarritasuna arautzen duena da. Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua zera xedatzen du: *"Herritarrak artxibo eta erregistro administratiboetara sartzeari, salbu eta estatuaren segurtasun eta defentsari, delituen ikerketari eta pertsonen bizitza pribatuari dagokienez"*.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 37. artikulua artxiboak eta erregistroak eskuragarri izateko eskubidea arautzen du. Artikulu horrek xedatzen du pertsonen intimitateari buruzko datuak gorde egin behar direla. Eskuragarritasun hori arautzen duten lege ezberdinetako bat azaroaren 14ko 41/2002 Legea da, pazientearen autonomia eta informazio nahiz agiri klinikoaren inguruko eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen oinarritzko legea, alegia. Araudi horren arabera, pertsonak osasun-zentro publikoetan zein pribatuetan eskura ditzakete historia klinikoak (1. art.). Osasunari buruzko datuen konfidentzialtasuna errespetatzeko eskubidea ere arautzen du (7. art.).

Pazienteek beren historia klinikoko agiriak eta bertan jasotako datuen kopia eskuratzeko eskubidea dute, baina eskubide hori ezin da erabili besteren datuen konfidentzialtasunaren kaltetan (baldin eta interes terapeutikoa dutelako interesdunaren historian jasota badaude), ezta historia hori egin duten profesionalen eskubidearen kaltetan ere, azken horiek beren ohar subjektiboak ez erakustea erabaki baitezakete (18. art.).





Agiri klinikoak sorospen-prozesu bakoitzari alta ematen zaion egunetik bost urteko apean mantendu beharko dira gutxienez. Ondorio judizialerako ere gordetzen dira, indarrean dagoen legediak agintzen duen legez (17. art.).

Horrenbestez, datuak emateari uko egin ahal zaio datuen babeserako oinarrizko eskubidea nahiz intimitaterako eskubidea argudiotzat erabilia eta, eskatzailea nor den kontuan hartuta, baita eskatzaileak interes legitimorik ez duela edo epea iraungita dagoela argudiatuta ere. Aztertu beharrekoa zera litzateke, ea identitaterako eskubidea eta norberaren jatorri biologikoa ezagutzeko eskubidea datuen eskuragarritasuna arautzen duen araudian sar daitezkeen eta eskubide horiek babesteko lege-aurreikuspen berriak ezarri behar diren.

Artxiboak eta erregistroak eskuratzeko eskubideak intimitaterako eskubidea eta datuen babeserako eskubidea barne hartzen ditu. Identitatea izateko eta norberaren jatorri biologikoa ezagutzeko eskubideak ere bertan sartuz gero, intimitaterako eta datuen babeserako eskubideen funtsezko edukia errespetatu beharko litzateke (EK 18. art.). Identitatea izateko eta jatorri biologikoa ezagutzeko eskubideak kontuan izanda erregistroen eta artxiboen eskuragarritasuna arautzen duten lege-xedapen berriak egin behar ote diren da aztertu beharrekoa. Xedapen horiek intimitaterako oinarrizko eskubidearen eta datuen babeserako eskubidearen edukiak errespetatu beharko litzukete, konstituzioko jurisprudentziak agintzen duen legez. Hainbat dira zentzu horretan aztertu eta behar bezala haztatu beharreko proposamenak; hona hemen adibide bat: umeen jaiotza-agiriei buruzko historia klinikoak bost urte baino gehiagoz gordetzeko betebeharra ezartzea (gogora dezagun bost urtekoa dela egun halako kasuetarako aurreikusitako epea).

Gai honen inguruan hainbat eskubidek talka egiten dute elkarrekin. Umeen kasuan, gatazka hori konpontzeko haurren interes gorena hartu behar da kontuan. Interesen eta eskubideen arteko talkak egoteak ezinezko egiten du kasu guztietan erantzun bera eman ahal izatea, beraz, ebazpen honetan behin eta berriro errepikatu dugun legez, indarrean dagoen araudiaren azterketa sakon eta zuhurra egin behar da horretarako intimitaterako nahiz datuen babeserako eskubideez gain identitaterako eta jatorri biologikoa ezagutzeko eskubideak ere kontuan hartuta, eskubide horiek eragina baitaukatete pertsonaren garapen askearengan.





III. ONDORIOAK

- 1 Ama biologikoei beren umeak lapurtu edo bidegabe banandu izanak alarma eta erakundeekiko mesfidantza sortu dute gizartean, beraz, botere publikoek badute zertaz kezkatu. Horrenbestez, abian diren prozedura judizialen emaitzak edozein direla ere, eta nahiz eta irregulartasun-kasu gehienak 60ko eta 70eko hamarkadetan gertatu, gaia jorratu egin beharko lukete agintariek.
- 2 Ezinbestekoa da gertatutakoa argitzea, eta horretarako bide judiziala erabiltzeaz gain (egonez gero, bide horretatik ezarriko lirateke kasuan kasuko erantzukizunak), komenigarria litzateke gertatu zenaren berri edukitzeko eta adopzioak egiteko jarraitu ziren prozedurak nolakoak izan ziren jakiteko beste mekanismo bat ere sortzea. Horretarako egokia litzateke aditu independenteek osatutako Batzorde bat eratzea, gertatutakoa azter dezaten eta, txosten bat egin ondoren, biktimei nolabaiteko ordaina emateko bideak proposa ditzaten.
- 3 Kaltetutako pertsonen egintzak argitzeko prozesuan parte hartzea ahalbidetuko dien prozedura baten aldeko apustua egin beharko litzateke.
- 4 Artxiboen eta erregistroen eskuragarritasunari buruzkoa zein jaiotzaren erregistroari buruzkoa bezalako araudiak (bereziki Justizia Ministerioaren 1999ko azaroaren 10eko Agindua eta Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 1999ko otsailaren 15eko eta 2004ko uztailaren 1eko Jarraibideak), hau da, hizpide ditugun kasuetan aplikatzen diren araudiak aztertzea ere izan beharko litzateke ikerketaren helburuetako bat, horrela identitatea izateko eta jatorri biologikoa ezagutzeko eskubideak bermatuko dituen eta beste eskubide batzuekiko talka behar bezala neurtuko duen bestelako araurik onartzea beharrezkoa ote den baloratu ahal izango litzatekeelako.

